

# Altsasuko Udala /

---

**Berdintasun-teknikariaren plaza bat, oposizio-lehiaketaren bidez,  
betetzeko deialdia**

[NAO 227 - 2025ko azaroak 13](#)



- 1. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20. artikulua arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak:**
  - a. 5.000 biztanletik gorako udalerrri guztietan dago.
  - b. 5.000 biztanletik gorako udalerrri guztietan dago, eta biztanle gutxiagokoetan, erregelamendu organikoak hala xedatzen duenean edo udaleko osoko bilkurak hala erabakitzen duenean.
  - c. 5.000 biztanletik gorako udalerrri guztietan dago, eta biztanle gutxiagokoetan, erregelamendu organikoak hala xedatzen duenean edo udaleko osoko bilkurak gehiago osoz hala erabakitzen duenean.
  - d. Udalerrri guztietan dago.
  
- 2. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46. artikulua arabera:**
  - a. Osoko bilkuretarako deialdia gutxienez bi egun baliodun lehenago egin behar da, ezohiko bilkuretarako izan ezik.
  - b. Osoko bilkuretarako deialdia gutxienez 48 ordu lehenago egin behar da, ezohiko eta premiazko bilkuretarako izan ezik. Azken horien deialdia Osoko Bilkurak berretsi beharko du gehiago osoz.
  - c. Osoko bilkuretarako deialdia gutxienez bi egun baliodun lehenago egin behar da, ezohiko eta premiazko bilkuretarako izan ezik. Bilkura horietarako deialdia Osoko Bilkurak berretsi beharko du.
  - d. Osoko bilkuretarako deialdia, gutxienez, bi egun baliodun lehenago egin behar da, ezohiko eta premiazko bilkuretarako izan ezik. Azken horien deialdia Osoko Bilkurak berretsi beharko du gehiago osoz.
  
- 3. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 3. artikulua arabera, udalerrriak ez ezik, Nafarroako toki erakundeak ere badira:**
  - a. Tokiko partzuergoak.
  - b. Administrazio-barrutiak.
  - c. Administrazio-zerbitzuen elkarteak.
  - d. Eskualdeak.
  
- 4. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 54. artikulua arabera, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioak, arduraldi eskusiboko alkate edo zinegotzi kargu ordaindua eskuratzen badute, egoera honetara pasatuko dira:**
  - a. Nahitaezko eszedentzia.
  - b. Zerbitzu bereziak.
  - c. Eszedentzia berezia.
  - d. Zerbitzu-eginkizuna.
  
- 5. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 86. artikuluaekin bat etorriz, Udalaren Osoko Bilkurak onartu ahal izango du zinegotziek botoa eskuordetzeko kasuak bere erregelamendu organikoan sartzea, honako honen arabera (markatu erantzun okerra):**
  - a. Zinegotzi batek ere ezin izango du boto eskuordetu bat baino gehiago izan.
  - b. Botoa eskuordetzan emateko epea ez da inola ere urtebetetik gorakoa izango.
  - c. Boto eskuordetua osoko bilkuretan eta batzordeetan eman ahal izango da.
  - d. Boto eskuordetuen kopuruak ezin izango du, inola ere, korporazioko kide diren zinegotzi guztien erdia gainditu.

**6. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 11. artikulua** xedatzen duenez, oro har, administrazio-prozeduran aurreikusitako edozein jarduketa egiteko, nahikoa izango da interesdunek alde aurretik beren nortasuna egiaztatzea lege honetan aurreikusitako edozein identifikazio-bideren bidez. Administrazio publikoek honako kasu hauetan bakarrik eskatuko diete interesdunei sinadura nahitaez erabiltzeko:

- a. Eskabideak egitea.
- b. Erantzukizunpeko adierazpenak edo komunikazioak aurkeztea.
- c. Errekurtsoak jartzea.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**7. Ebazteko betebeharrari dagokionez (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua), markatu erantzun zuzena:**

- a. Administrazioa behartuta dago esanbidezko ebazpena eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua, salbu eta preskripzioa, eskubideari uko egitea, prozedura iraungitzea edo eskaeran atzera egitea gertatzen denean, bai eta prozeduraren xedea gerora desagertzen denean ere.
- b. Prozeduretako arauak ebazteko gehieneko epea finkatzen ez dutenean, epea sei hilabetekoa izango da.
- c. Herri-administrazioek beren eskumeneko prozeduren zerrendak argitaratu eta eguneratuta eduki behar dituzte web-atarian, informazioa emateko, eta prozeduren gehieneko iraupen-epeak eta administrazio-isiltasunak sortzen dituen ondorioak adierazi behar dituzte.
- d. Ebazteko betebeharra ez betetzeak ez du diziplina-erantzukizunik suposatuko.

**8. Administrazio publikoekin baliabide elektronikoak erabiltzeari dagokionez (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua), adierazi zein den erantzun zuzena:**

- a. Pertsona fisikoek une oro aukeratu ahal izango dute herri-administrazioekin komunikatzen diren beren eskubideak eta betebeharrak bitarteko elektroniko bidez egikaritzeko edo ez, salbu eta herri-administrazioekin bitarteko elektroniko bidez harremanak izatera behartuta badaude. Pertsonak herri-administrazioekin komunikatzeko aukeratzen duen bidea edozein unetan alda dezake.
- b. Pertsona juridikoek une oro aukeratu ahal izango dute herri-administrazioekin komunikatzen diren beren eskubideak eta betebeharrak bitarteko elektroniko bidez egikaritzeko edo ez, salbu eta herri-administrazioekin bitarteko elektroniko bidez harremanak izatera behartuta badaude. Pertsonak herri-administrazioekin komunikatzeko aukeratzen duen bidea edozein unetan alda dezake.
- c. Pertsona fisikoek une oro aukeratu ahal izango dute herri-administrazioekin komunikatzen diren beren eskubideak eta betebeharrak bitarteko elektroniko bidez egikaritzeko edo ez, salbu eta herri-administrazioekin bitarteko elektroniko bidez harremanak izatera behartuta badaude. Pertsonak herri-administrazioekin komunikatzeko aukeratzen duen bidea ezin izango du inoiz aldatu pertsona horrek.
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**9. Administrazio-egintzen jakinarazpenari dagokionez (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua), adierazi erantzun okerra:**

- a. Egintza eman eta hamar eguneko epean egin beharko dira jakinarazpen guztiak.
- b. Jakinarazpenetan ebazpenaren testu osoa jaso beharko da, eta honako hauek adierazi beharko dira: administrazio-bidea amaitzen duen ala ez, administrazio-bidean eta bide judizialean jar daitezkeen errekurtsioak, zein organori aurkeztu behar zaizkion eta horiek aurkezteko epea.
- c. Egintzaren testu osoa duten jakinarazpenek, gainerako betekizunetakoren bat bete gabe uzten badute, ondorioak izango dituzte interesdunak jakinarazpenaren xede den ebazpenaren edo egintzaren edukia eta norainokoa badakiela adierazten duten jarduketak egiten dituen egunetik aurrera, edo egoki den edozein errekurtsio jartzen duenetik aurrera.
- d. Herri-administrazioek beharrezko jotzen dituzten neurriak hartu beharko dituzte administrazio-ebazpen eta -egintzetan jasotako datu pertsonalak babesteko, interesdun bat baino gehiago dutenean hartzaile.

**10. Administrazio-prozeduran txostenak egiteari dagokionez (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 80. artikulua), markatu erantzun zuzena:**

- a. Berariaz bestelakorik xedatu ezean, txostenak nahitaezkoak izango dira, eta ez lotesleak.
- b. Txostenak bitarteko elektronikoen bidez emango dira hamabost eguneko epean, salbu eta xedapen batek edo prozeduraren gainerako epeak betetzeak epe luzeagoa edo laburragoa ahalbidetzen edo eskatzen badu.
- c. Txostena adierazitako epean egiten ez bada, eta atzerapenaren erantzuleak izan dezakeen erantzukizunari kalterik egin gabe, jarduketekin jarraitu ahal izango da, nahitaezko txostena denean izan ezik; kasu horretan, prozedura ebazteko legez ezarritako gehieneko epea igarotzea eten ahal izango da.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

**11. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 29. eta 30. artikuluen arabera, Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakaria (markatu erantzun okerra):**

- a. Sufragio unibertsal, aske, berdin, zuzen eta isilpekoaren bidez aukeratzen da, lau urterako.
- b. Nafarroako Foru Komunitatearen ordezkaritza gorena du, eta Estatuaren ordezkaritza arrunta Nafarroan.
- c. Nafarroako Gobernuko edo Foru Diputazioko lehendakaria da.
- d. Bere erantzukizun eksklusiboaren pean eta Nafarroako Gobernuak edo Foru Diputazioak eztabaidatu ondoren, Parlamentua desagitea eta hauteskunde berriak deitzea erabaki ahal izango du, legegintzaldiaren amaiera naturala baino lehen.

**12. Izendapen askeko lanpostuen inguruan (Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 35. artikulua), markatu erantzun zuzena:**

- a. Titularrak funtzionario izan behar dira.
- b. Lanpostu horiek dagokion izendapena egin behar duen organoak deialdia egin ondoren beteko dira.
- c. Izendatutako pertsonak behin-behineko langile gisa izendatuko dira, eta izendatu zituen organoak askatasunez kendu ahal izango ditu.
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**13. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzupeko langileen estatutuaren testu bategina onartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 15. artikulua araberako, mailaz igotzeko, txanda murriztuan betetzeko hautaprobetan plaza hutsak gordeko dira, honako baldintza hauek betetzen dituzten Nafarroako edozein administrazio publikotako funtzionarioen artean (markatu erantzun okerra):**

- a. Deitutako lanpostu hutsak baino beheragoko mailakoa izatea.
- b. Deialdian eskatzen den titulazioa izatea eta herri-administrazioetan hiru urteko antzinatea egiaztatzea.
- c. Borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea, salbu eta borondatezko eszedentzian dagoen pertsona deialdia egin duen administrazio berean beste lanpostu finko edo aldi baterako batean lanean ari denean.
- d. Dagozkion hautaprobak gainditzea.

**14. Kontratu publikoen balio zenbatetsia kalkulatzeko, ez da kontuan hartu behar (Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 42. artikulua):**

- a. Behin-behineko edozein aukera eta kontratuaren balizko luzapenak.
- b. Aplikatzekoak diren sektoreko hitzarmen kolektiboak eta indarrean dagoen lan-araudia aplikatzearen ondoriozko kostuak.
- c. Balio erantsiaren gaineko zerga.
- d. Etekin industrialak.

**15. Kontratuen iraupenari dagokionez (Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 45. artikulua), markatu erantzun zuzena:**

- a. Hornidura- eta zerbitzu-kontratuen gehieneko iraupena lau urtekoa izango da, luzapen guztiak barne, salbu eta, prestazioaren xedeari dagokionez, berariaz justifikatu beharreko salbuespenezko inguruabarrak direla-eta, epe luzeagoa behar denean.
- b. Agiri arautzaileek ezin dute ezarri kontratazio-organoak nahitaezko luzapenak onartzeko aukera.
- c. Emakida-kontratuak ezin izango dira luzatu.
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**16. Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 232. artikulua araberako, zerbitzu-kontratuak suntsiarazteko arrazoi espezifikoetako bat da:**

- a. Administrazioari egotz dakioken arrazoiren batengatik kontratua egikaritzen hasita hiru hilabete baino gehiagoz etetea, kontratuan adierazitako egunetik zenbatzen hasita, baldintza-agirian beste epe laburragoren bat aipatzen denean izan ezik.
- b. Administrazioari egotz dakioken arrazoiren batengatik kontratua egikaritzen hasita sei hilabete baino gehiagoz etetea, kontratuan adierazitako egunetik zenbatzen hasita, baldintza-agirian beste epe laburragoren bat aipatzen denean izan ezik.
- c. Administrazioari egotz dakioken arrazoiren batengatik kontratuari hasiera ematea bederatzi hilabete baino gehiagoz etetea, kontratuan adierazitako egunetik zenbatzen hasita, baldintza-agirian beste epe laburragoren bat aipatzen denean izan ezik.
- d. Administrazioari egotz dakioken arrazoiren batengatik kontratua gauzatzen hasita urtebetetik gorako epean etetea, kontratuan adierazitako egunetik zenbatzen hasita, baldintza-agirian beste epe laburragoren bat aipatzen denean izan ezik.

**17. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikulua arabera, honako hauetako bat ez da jasotako dirulaguntza itzultzeko arrazoia:**

- a. Dirulaguntza lortzea, horretarako eskatzen diren baldintzak faltsutuz edo hori eragotzi dutenak ezkutatuz.
- b. Helburua, jarduera edo proiektua guztiz edo zati batean ez betetzea, edo dirulaguntza ematea funtsatzen duen portaera ez hartzea.
- c. 38/2003 Legearen 18.4 artikuluan adierazitako hedapen-neurriak hartzeko betebeharra ez betetzea.
- d. Krediturik ez izatea edo kreditu nahikorik ez izatea.

**18. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua arabera, honako egoera hauetako batean dauden pertsonak edo erakundeak ezin izango dira onuradun edo erakunde laguntzaile izan:**

- a. Epai irmo baten bidez, dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzera kondenatuak izatea, edo prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak egiteagatik.
- b. Erregelamenduz zerga-paradisua gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean izatea zerga-egoitza.
- c. Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**19. Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 7. artikulua ezartzen duenez, adingabe baten datu pertsonalen tratamendua haren baimenean bakarrik oinarritu ahal izango da:**

- a. Hamalau urtetik gorakoa denean.
- b. Hamabi urtetik gorakoa denean.
- c. Hamahiru urtetik gorakoa denean.
- d. Hamasei urtetik gorakoa denean.

**20. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen arabera, zer da publizitate aktiboa?**

- a. Foru lege honen aplikazio-eremuan jasotako entitateen esku dagoen informazio publikoa eskuratzeko aukera, egiazkotasunari buruzko segurtasunez eta Estatuko oinarritzko araudian eta foru lege honetan ezarritako betekizun eta baldintza gehiagorik gabe.
- b. Datuak formatu digital, estandarizatu eta irekian eskuragarri jartzea, horiek ulertzea eta berrerabiltzea ahalbidetuko duen egitura argi bati jarraituz, kudeaketa publikoaren gardentasuna sustatzeko, aztertzeko eta ebaluatzeko, administrazioen arteko elkarrengarritasuna sustatzeko eta datu horietatik eratorritako produktuen bidez balioa eta aberastasuna sortzeko.
- c. Jarduera publikoaren gardentasuna eta gobernu-ekintza bermatzeko garrantzitsua den informazio publikoa modu iraunkor, egiazko eta objektiboan zabaltzeko betebeharra.
- d. Herritarren esku-hartzea eta inplikazioa, indibidualki edo kolektiboki eta ezagutzatik abiatuta, Administrazioen berezko politiketan eta eginkizunetan, herritarren eta Administrazio Publikoen artean entzute aktiboa eta elkarriketa ahalbidetzen duten prozesu eta mekanismoen bidez.

**21. Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 21. artikulua arabera, administrazio publikoen arteko lankidetzari dagokionez:**

- a. Toki-erakundeek berdintasun-eskubidea integratuko dute beren eskumenak gauzatzean, eta, horretarako, lankidetzan jardungo dute gainerako herri-administrazioekin.
- b. Estatuko Administrazio Orokorra eta toki-erakundeak lankidetzan arituko dira emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskubidea integratzeko, bakoitzak bere eskumenak gauzatzean.
- c. Toki-erakundeen barruan, helburu horrekin jarduteko plan eta programa bateratuak onartu ahal izango dira.
- d. Artikulu horrek ez du ezer aipatzen toki-erakundeei buruz.

**22. Berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituen urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretuaren 9. artikulua arabera (planaren indarraldiari, jarraipenari, ebaluazioari eta berrikuspenari buruzkoa):**

- a. Berdintasun-planen indarraldia edo iraupena, alderdi negoziatzaileek zehaztuko dutena, gehienez ere lau urtekoa izango da.
- b. Berdintasun-planen indarraldia edo iraupena, alderdi negoziatzaileek zehaztuko dutena, gutxienez lau urtekoa izango da.
- c. Berdintasun-planen indarraldia edo iraupena, alderdi negoziatzaileek zehaztuko dutena, ezin izango da sei urtetik gorakoa izan.
- d. Berdintasun-planen indarraldia edo iraupena zehaztugabea izango da.

**23. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen 23. artikulua arabera (“Aurrekontuak genero-ikuspegiarekin”):**

- a. Toki-erakundeek genero-ikuspegia txertatuko dute beren aurrekontu-politikan, eta genero-eraginaren azterketa sustatuko dute politika horretan.
- b. Ogasunaren arloan eskumena duen sailak, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren parte-hartzearekin, aurrekontu-programen memorietan genero-ikuspegia txertatu dela egiaztatuko du, aurrekontuei buruzko foru legearen aurreproiektuari buruzko genero-txostena eginez.
- c. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren amaieran, sail eta erakunde autonomoen memorietan jasotako helburuak betetzeari buruzko genero-auditoriak egitea bultzatu eta bultzatuko du.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**24. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen 11. artikulua arabera, adierazi zein EZ den Berdintasunerako Sail arteko Batzordearen eginkizuna:**

- a. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako departamentuek genero berdintasunaren arloan egiten dituzten jardueren koordinazioa ziurtatzea.
- b. Sailen plangintza sustatzea eta bultzatzea, genero-berdintasunerako politika orokorra sailen jardura sektorialetara eramateko.
- c. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren betearazpenaren eta betetze-mailaren jarraipena egitea.
- d. Lehenetsitako jardura-ildoak garatzeko beharrezkoak diren sailen arteko lantaldeak eta batzordeak ezartzea.

**25. Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren 33. artikulua arabera, honako hauetatik zein EZ da jasotzen laguntza integral espezializatu eta irisgarriko eskubidearen barruan?**

- a. Beren eskubideei eta baliabideei buruzko informazioa eta orientazioa.
- b. Eskubideen erreklamazioen jarraipena.
- c. Laguntza pertsonala, emakume guztientzat eskuragarri dagoen baliabide gisa, desgaitasunen bat izan ala ez.
- d. Arreta espezializatua, sexu-indarkeriaren eta sexu-salerosketaren eta -esplotazioaren biktima diren haurren kasuan.

**26. Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa (adierazi erantzun okerra):**

- a. Lege horren 1. artikuluan adierazten den bezala, ezkontide direnek edo izan direnek, edo haiekin antzeko afektibitate-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarrekin bizi ez, emakumeei eragiten dieten indarkeriaz ari da.
- b. Emakumearen aurkako indarkeriaren epaitegiak eta haien eskumenak sortzea eta Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokia eratzea ezartzen du.
- c. Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiak hiru hilean behin txosten bat bidali behar die Gobernuari eta autonomia-erkidegoei, emakumeen aurkako indarkeriaren bilakaerari buruz.
- d. Emakumearen aurkako Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza Berezia sortzen du.

**27. Emakumeen aurkako indarkeriaren aurka jarduteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen 4. artikulua arabera (“Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima eta egiaztapena”), emakumeen aurkako indarkeria-egoera honako hauek egiaztatuko dute, beharrezkoa den guztietan eta aplikatzekoa den araudian hala ezarrita:**

- a. Edozein jurisdikzio-ordenatuko epai irmoa, emakumeak indarkeria jasan zuela deklaratzeko duena.
- b. Fiskaltzaren txostena, indarkeria-zantzuak daudela adierazten duena.
- c. Administrazio publiko eskuduneko gizarte-zerbitzuen eta/edo osasun-zerbitzuen ziurtagiria eta/edo txostena.
- d. Aurreko guztiak, eta, gainera, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren txostena, lan-eremuan sexu-jazarpena edo sexuagatiko jazarpena gertatzen den kasuetan, besteak beste.

**28. Emakumeenganako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen arabera:**

- a. Hezkuntza-eremuan prebentzio-neurriak eta emakumeak eta gizonak sentsibilizatzeko eta informatzeko neurriak hartzea gomendatzen da, genero-indarkeriaren arloko Estatuko oinarrizko araudian eta hezkuntzaren arloko oinarrizko araudian aurreikusitakoaren arabera.
- b. Foru-administrazioak, bere lurralde-eremuko toki-erakundeekin lankidetzan, hautemateko, jarduteko eta bideratzeko protokolo espezifikoak prestatuko ditu, prozesu horietan duten inplikazioaren eta eginkizunen arabera.
- c. Ahal den guztietan eta egokitzat jotzen den guztietan, emakumeen aurkako indarkeriaren aurreko erantzuna erantzukizun instituzionalaren esparru guztietara zabalduko da (prebentzioa, babesa, laguntza, biktimentzako erreparazioa eta justiziaren sustapena), eta emakumeen eskubideak egia bihurtzen direla bermatzea izango du helburu.
- d. Emakumeen aurkako indarkeriaren aurreko erantzuna estereotipoak eta genero-harremanak, horien sustraiak eta ondorioak ulertzean oinarrituko da. Biktimaren eta erasotzailearen arteko bitartekaritzak balorazio profesional positiboa eskatuko du emakumeen aurkako indarkeria-kasuetan, aplikatzekoa den oinarrizko araudian xedatzen den bezala.

**29. Adierazi ondorengo baieztapenetatik zein EZ den zuzena Nafarroan emakumeenganako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen Ekintza Planari dagokionez:**

- a. Horren helburua da erakundeek Nafarroako Foru Komunitatean emakumeen aurkako indarkeriari ematen dioten erantzuna hobetzea, emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpenei kalitatezko erantzunak ematera bideratutako estrategia orokor bat artikulatuz, 14/2015 Foru Legea betetzen dela bermatuz.
- b. Dokumentu estrategikoa da, eta arau horren 75. artikulua betez egiten da.
- c. Printzipio gidarien artean, emakumeen ahalduntzea dago, Ekintza Planaren helmuga gisa.
- d. Ekintza Planak esku hartzeko 10 eremu identifikatzen ditu, lau ardatz estrategikoen artean banatuta.

**30. LGTBI+ pertsonen gizarte-berdintasunerako ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legearen 8. artikulua arabera, zein da erantzun zuzena?**

- a. LGTBI+ Berdintasunerako Koordinazio Organoaren barruan LGTBI+ Nafarroako Kontseilua eratuko da, sektoreko partaidetzarako kontsulta-organo eta eztabaidarako plataforma egonkor gisa.
- b. LGTBI+en Nafarroako Kontseiluaren barruan, LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzailea eratuko da, sektoreko partaidetzarako kontsulta-organo eta eztabaidarako plataforma egonkor gisa.
- c. LGTBI+ Berdintasunerako Koordinazio Organoaren barruan, Nafarroako LGTBI+ Kontseilua eratuko da, sektoreko partaidetzarako kide anitzeko organo eta eztabaidarako plataforma egonkor gisa.
- d. LGTBI+en Nafarroako Kontseiluaren barruan, LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzailea eratuko da, sektoreko partaidetzarako kide anitzeko organo eta eztabaidarako plataforma egonkor gisa.

**31. Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, zein da erantzun zuzena?**

- a. Sexuagatiko zuzeneko bereizkeria da lanarekin eta kontziliazioarekin zerikusia duten emakumeen aurkako tratu oro.
- b. Sexuagatiko zuzeneko bereizkeria da haurdunaldiarekin edo amatasunarekin zerikusia duten emakumeen aldeko tratu oro.
- c. Sexuagatiko zuzeneko bereizkeriatzat hartzen da, sexuaren arabera, antzeko egoeran dagoen beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatzen den pertsona bat.
- d. Zuzeneko bereizkeriatzat hartzen da itxuraz neutroa den xedapen, irizpide edo praktika batek sexu bateko pertsonak beste sexu pertsonetikiko desabantaila berezian jartzen dituenean, salbu eta xedapen, irizpide edo praktika hori objektiboki justifika daitekeenean bidezko helburu baten arabera eta helburu hori lortzeko bitartekoak beharrezkoak eta egokiak direnean.

**32. Nafarroako Gobernuaren 2011ko maiatzaren 16ko Erabakiak, foru-legeen aurreproiektuetan, legegintzako foru-dekretuen proiektuetan, erregelamenduzko xedapenen proiektuetan eta Nafarroako Gobernuaren eskumenekoak diren plan eta programetan sexuaren araberako eraginari buruzko txostena egiteko jarraibideak onartzen dituenak, jasotzen duenaren arabera, zein da erantzun zuzena?**

- a. Jarraibide honen xedea da sexuaren araberako eraginari buruzko txostenaren edukia arautzea. Txosten hori nahitaez erantsi behar zaie foru-legeen aurreproiektuei, legegintzako foru-dekretuen proiektuei, erregelamenduzko xedapenen proiektuei eta toki-ordenantzei.
- b. Sexuaren araberako eraginari buruzko txostena agiri arauemailea da.
- c. Arauaren, planaren edo programaren edukiaren arabera, txostenak ondoriozta dezake eragin negatiboa, positiboa edo neutroa duela.
- d. Arauaren, planaren edo programaren aurreproiektua edo proiektua proposatzen duen sailak edo zuzendaritza-zentroak egin beharko du sexuaren araberako eraginari buruzko txostena, eta izapidetze-prozesuaren hasieratik aurkeztu beharko du proposamenarekin batera.

**33. Berdintasun-agentearen figura:**

- a. Gizartean, hezkuntzan eta lanean esku hartzera bideratutako profila da, eta berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren sustapena zeharka txertatzen du bere jardueran.
- b. Indarrean dagoen legeria eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko politikak betez sortzen diren plan, protokolo eta proiektu orokorretan sartzen diren jardueren diagnostikoan, diseinuan, garapenean eta ebaluazioan oinarritutako profila da.
- c. Historikoki eta gaur egun arte, berdintasunaren sustatzaileen antzeko lanbide-kategoria gisa jardun du; izan ere, bi lanbide horiek elkarren osagarri dira eta ezinbestekoak dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra lortzeko.
- d. Lanbidean aritzea legez araututa dauka.

**34. Nafarroako toki entitateen berdintasun politika planifikatzeko ibilbideari dagokionez, adierazi zein den erantzun zuzena:**

- a. 2. etapan jarraipena ematen zaio udal-gobernagarritasunaren ereduan genero-ikuspegia txertatzeari, eta berdintasunaren arloan ibilbide luzeena duten administrazio- eta kudeaketa-prozedura komunen inguruan lan egiten da.
- b. 3. etapan jarraipena ematen zaio udal-gobernagarritasunaren ereduan genero-ikuspegia txertatzeari, eta berdintasunaren arloan ibilbide luzeena duten administrazio- eta kudeaketa-prozedura komunen inguruan lan egiten da.
- c. 2. etapan, toki-erakundeak gobernu-eredu baterantz doaz, non berdintasuna erakunde-kulturaren parte den eta modu egonkorrean ezarrita dagoen.
- d. 2. etapan, helburua da berdintasuna toki-erakundearen arau- eta programa-esparruaren parte izatea, berdintasunerako lana sustatzeko erreferentziazko pertsonak identifikatu izana, berdintasunerako esku-hartzea bideratzeko eta ez inprobisatzeko gutxieneko plangintza egotea, eta horretarako behar diren baliabideak zenbatestea eta antolatzea.

**35. Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean koordinatzeko Erakunde arteko III. Akordioaren arabera, adierazi baieztapen hauetatik zein ez den zuzena:**

- a. Harrera-etxea egonaldi ertaineko egoitza-baliabide bat da, emakumeak eta haien seme-alabak berreskuratzeko.
- b. Genero-indarkeriaren biktimentzako gizarte-larrialdietarako laguntzak prestazio bermatuzat jotzen dira.
- c. EAIVak Eremu Orokorreko Gizarte Zerbitzuen Zorroko bermatu gabeko prestazioak dira.
- d. Biztanle kopuruari dagokionez, Nafarroako udalerrri garrantzitsuenetako batzuek aholkularitza espezializatua eskaintzen diete bizirik dirauten emakumeei.

**36. Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean koordinatzeko Erakunde arteko III. Akordioak jasotzen duen Protokoloaren helburu orokorren artean EZ dago:**

- a. Bereizkeriaren, desberdintasun-egoeraren eta gizonek emakumeen gainean dituzten botere-harremanen adierazpen gisa, beren ezkontide direnek edo izan direnek, edo haiekin antzeko afektibitate-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta bizikidetzarik ez izan, emakumeei eragiten dieten indarkeriaren aurka jardutea.
- b. Prebentzio-, arreta-, babes- eta berreskuratze-sistema osoa jarraibide komun eta homogeen bidez artikulatzen dela bermatzea.
- c. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea hezkuntza-komunitatetik eta hezkuntza-komunitatearekin, familia-, lan- eta gizarte-inguruneetan ez ezik.
- d. Indarrean dagoen lege-esparrua garatzea, bereziki Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren aurka jarduteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea, Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legea eta Genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa.

**37. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Estrategikoa:**

- a. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen gomendio bat da.
- b. 2022 eta 2027 bitartean Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoen berdintasunerako esku-hartzea bideratzen duen plangintza-tresna da.
- c. Politika publikoak neutrala dela onar dezan eta bere jardunak maila guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eragin positiboa izatea ahalbidetzen duten elementuak sar ditzan laguntzea du helburu.
- d. Toki-erakundeei ez die interpelatzen berdintasunaren arloan dituzten eskumenak dela eta.

**38. Genero-indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza hauetako baten mende dago:**

- a. Barne Ministerioa.
- b. Berdintasun Ministerioa.
- c. Lehendakaritza Ministerioa.
- d. Lehendakaritza eta Berdintasun Ministerioa.

**39. Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko premiazko neurriei buruzko abuztuaren 3ko 9/2018 Errege Lege Dekretuaren arabera:**

- a. Gai horiek udalerrien eskumen delegatuko gaien katalogoan jaso beharko dira.
- b. Toki-erakundeek berariazko zenbatekoak sartuko dituzte beren urteko aurrekontuetan, Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Ituna ezartzeko.
- c. Premiazko neurrietako bat da lege-aldaketa egokiak egitea, toki-administrazioak jarduerak egin ditzan gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko eta genero-indarkeriaren aurka.
- d. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak genero-indarkeriaren aurkako politikak berezko eskumen gisa garatzeko aukera ematen du.

**40. Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren arloko jarduerak koordinatzeko Protokoloak (2018) jasotzen duen profesionalentzako gidan jasotako baliabideen artean, zein daude Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren mende?**

- a. Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldeak (EAVI), Emakumeari Laguntza Juridikoa emateko Zerbitzua (SAM) eta Delituaren Biktimei Laguntzeko Bulegoa (OAVD).
- b. Emakumeari Laguntza Juridikoa emateko Zerbitzua (SAM), Delituaren Biktimei Laguntzeko Bulegoa (OAVD), Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala Emateko Taldeak (EAVI) eta genero-indarkeriaren biktimei arreta eta babesa emateko telefono-zerbitzua (ATEMPRO).
- c. Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldeak (EAVI), Emakumeari Laguntza Juridikoa emateko Zerbitzua (SAM) eta indarkeriaren biktimea diren emakumeentzako harrera-baliabideak eta aldi baterako bizitoki segurua.
- d. 112 SOS Nafarroa, Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldeak (EAVI), Emakumeari Laguntza Juridikoa emateko Zerbitzua (SAM) eta Delituaren Biktimei Laguntzeko Bulegoa (OAVD).

**41. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko jarduerak koordinatzeko protokoloa (2018) jasotzen duen profesionalentzako gidan adierazten den bezala (adierazi zuzena):**

- a. Errekurtso guztiak aktibatzeko, beharrezkoa da alde zuzenetik salaketa jartzea.
- b. Emakumeari Laguntza Juridikoa emateko Zerbitzua (SAM) Nafarroa osoan ezarrita dago, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak (INAI) eta Iruñeko, Tuterako, Lizarrako eta Tafallako Abokatuen Elkargoek sinatutako hitzarmen baten bidez.
- c. Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala Emateko Taldeetarako sarbidea udaleko gizarte-zerbitzuetatik edo harrera-baliabideetatik bideratutako informazio bidez baino ez da egiten.
- d. Larrialdietako Zentroan astebeteko egonaldia izan daiteke, sei hilabetera luza daitekeena.

**42. Emakumeen aurkako indarkeriaren aurreko jarduna koordinatzeko tokiko protokoloak egiteko gida (2018):**

- a. Adierazten du emakumeen aurkako indarkeriaren aurreko jarduna koordinatzeko tokiko protokolo bat egin ahal izango dela toki-erakundeetan berdintasunean espezializatutako teknikaririk gabe, betiere beste arlo batzuetako teknikari arduradunak baditu.
- b. Berdintasun-arloak arduratzen dira protokoloaren jarraipena eta eguneratzea gidatu eta bultzatzeaz, jarduerak koordinatzeaz, esku hartzeaz, informazioa zentralizatzeaz eta jarraipena egiteaz.
- c. Apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen 20. artikulua eta bigarren xedapen gehigarria betetzea ahalbidetuko duen esparrua izan nahi du.
- d. Ez du aurreikusten tokiko protokoloek hainbat udalerriri estaldura ematea, bakoitzak bere udalerrri propioa izan behar baitu, udal-errealitate bakoitzari egokituia.

**43. Emakumeen aurkako indarkeriaren aurreko jarduna koordinatzeko tokiko protokoloak egitea (2018):**

- a. Lantalde eragile gisa jardungo duen udal-lantalde eskusibo bat sortzea eskatzen du.
- b. Segidako 5 fase kronologiko biltzen dituen lan-metodologiari erantzuten dio.
- c. II. faseko konpromiso formala barneratzen du, herritarrei IV. fasera arte jakinarazi behar ez zaiena.
- d. Prestaketa-fasearekin hasten da. Fase hori teknikoa da eta toki-erakundeko berdintasun-arloak bultzatu behar du.

**44. Zaintzen aldeko Itunetako parte-hartze mailaren eta maila bakoitzak dakartzan konpromisoen arabera, nori dagokio dokumentuak baliozkotzea eta onartzea?**

- a. Itunaren Batzarra.
- b. Koordinazio teknikoa.
- c. Lantaldeak.
- d. Koordinazio teknikoa eta lantaldeak.

**45. Altsasuko Udalaren emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Ordenantzaren 16. artikulua arabera, Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak kontratazio publikorako pleguetan genero-klausulei buruz eskatutakoa betez, honako hauek jasoko ditu:**

- a. Lizitatuzaileek konpromisoa hartzea Udalak egindako sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren protokoloa ezagutzeko, kontratazio-prozeduran parte hartzeko eskaera egitean.
- b. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-irizpideen % 40 eta % 50 bitartean, esleipen-irizpide sozialen barruan.
- c. Aurkeztutako dokumentazioan eta proiektuarekin zerikusia duen dokumentazioan hizkera eta irudi ez-sexistak erabiltzea.
- d. Sexuaren arabera bereizitako estatistikak aurkezteko komenigarritasunari buruzko gomendioak.

**46. Altsasuko Udalaren emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Ordenantzak laguntza publikoetako genero-klausulei buruzko 17. artikuluan adierazten duen bezala:**

- a. Proiektua edo eskaera baloratzean, hizkuntza eta irudi ez-sexistak erabiltzea eta sexuaren arabera bereizitako datuak aurkeztea hartuko dira kontuan.
- b. Irizpide orokor gisa sartuko dira berdintasunaren printzipioa eta genero-bereizkeriarik ezaren printzipioa.
- c. Laguntzak eskatu ahal izango dituzte emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren aurkako helburuak dituzten erakundeek, betiere proiektuaren garapenean berdintasunaren arloko araudia betetzeko konpromisoa hartzen badute.
- d. Udalak genero-ikuspegia txertatuko du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eragin zuzena duten dirulaguntzen oinarri arautzaileetan.

**47. Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 5. artikulua arabera (prestakuntzari buruzkoa):**

- a. Artikulu honetan aipatzen diren prestakuntza-jardueren diseinuak ikuspegi intersekzionala hartuko du kontuan bereziki.
- b. Artikulu honetan aipatzen diren prestakuntza-jardueren diseinuak genero-ikuspegia hartuko du kontuan bereziki.
- c. Artikulu honetan aipatzen diren prestakuntza-jardueren diseinuak bereziki kontuan hartuko du belaunaldien arteko ikuspegia.
- d. Artikulu honetan aipatzen diren prestakuntza-jardueren diseinuak hezkuntza-ikuspegia hartuko du kontuan bereziki.

**48. Altsasuko Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Ordenantzaren 2. artikulua ("Aplikazio-eremua") arabera, ordenantza hau aplikatuko da:**

- a. Altsasuko Udalari eta haren erakunde autonomoei, bai eta Udalarekin kontratatzen duten enpresa guztiei ere.
- b. Altsasuko Udalari eta haren mendeko erakunde autonomoei eta merkataritza-sozietateei, bai eta udalarekin edo haren enpresekin kontratuak egiten dituzten, udalarekin edo haren enpresekin lankidetzeta-hitzarmenak sinatzen dituzten edo Udalaren dirulaguntza edo laguntza ekonomikoren bat jasotzen duten enpresa edo erakunde publiko edo pribatu guztiei ere.
- c. Altsasuko Udalari eta haren erakunde autonomoei, bai eta Udalarekin lankidetzeta-hitzarmenak egiten dituzten edo Udalaren dirulaguntza edo laguntza ekonomikoren bat jasotzen duten erakunde publiko guztiei ere.
- d. Altsasuko Udalari eta haren mendeko erakunde autonomoei eta merkataritza-sozietateei, bai eta udalarekin edo haren enpresekin kontratuak egiten dituzten, udalarekin edo haren enpresekin lankidetzeta-hitzarmenak sinatzen dituzten edo Udalaren dirulaguntza edo laguntza ekonomikoren bat jasotzen duten enpresa edo erakunde publiko guztiei ere.

**49. Berdintasunerako udal-politika bultzatu, kudeatu eta koordinatzeko egiturak, Altsasuko Udalean eratuak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Ordenantzaren arabera, honako hauek dira:**

- a. Berdintasunerako Mahai Teknikoa, Berdintasunerako Aholkularitza Mahaia eta Berdintasunerako Arloa.
- b. Berdintasunerako Batzorde Teknikoa, berdintasun-arloa eta Berdintasun Kontseilua.
- c. Berdintasun-batzordea, berdintasun-talde teknikoak eta partaidetza-organoak.
- d. Berdintasun Batzordea, Berdintasunerako aholkularitza-mahaia eta partaidetza-organoak.

**50. Hizkera eta irudi barneratzailearen erabilera arautzen duen Ordenantzaren 3. artikulua arabera, Udaleko Alkatetzak, Berdintasun arloarekin koordinatuta:**

- a. Dagokion arlorantz itzuliko ditu hizkera ez-sexistaz idatzita egotearen agindua betetzen ez duten espedienteak, txostenak eta dokumentuak.
- b. Hizkera sexistaz idatzitako espedienteak, txostenak eta dokumentuak berrikusi eta zuzenduko ditu.
- c. Dagokion arlorantz itzuliko ditu hizkera sexistaz idatzita eta zuzenduta dauden espedienteak, txostenak eta dokumentuak.
- d. Dagokion arlorantz hizkera zuzentzeko proposamenak egingo dizkio, hizkera sexistaz idatzita dauden espediente, txosten eta dokumentuetarako.

**51. Hizkuntza eta irudi barneratzailearen erabilera arautzen duen Ordenantzaren 6. artikuluan jasotzen den bezala, urteko plantilla organikoan, lanpostuei honela deituko zaie:**

- a. Beti forma bikoitza erabiliz (maskulinoan eta femeninoan).
- b. Termino neutroak erabiliz.
- c. Okupatzen duen pertsonaren sexua erabiliz edo forma bikoitza erabiliz (maskulinoan eta femeninoan).
- d. Okupatzen dituzten pertsonen izenak adieraziz.

**52. Altsasuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana:**

- a. I. Jarduketa Planaren ebaluazioa oinarri hartuta egin zen, 4 urteko indarraldiarekin.
- b. II. Jarduera Planaren eta Berdintasunerako Udal Ordenantzaren ebaluazioa oinarri hartuta egin zen, 3 urteko indarraldiarekin.
- c. II. Jarduketa Planaren ebaluazioa oinarri hartuta egin zen eta 2019an indarraldia amaitu zitzaion, luzapenik gabe.
- d. Erantzun guztiak okerrak dira.

**53. Bere printzipio eta bermeen arabera, Altsasuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana:**

- a. 17/2019 Foru Legean jasotako printzipioak onartzen ditu, eta genero-ikuspegia, paradigma feminista, interseksionalitatea eta udaleko politikarien eta teknikarien parte-hartzea txertatzen ditu.
- b. 17/2019 eta 14/2015 Foru Legeetan jasotako printzipioak onartzen ditu, eta genero-ikuspegia, paradigma feminista, interseksionalitatea eta parte-hartzea txertatzen ditu.
- c. 17/2019 Foru Legean jasotako printzipioak onartzen ditu, eta genero-ikuspegia, paradigma feminista, interseksionalitatea eta herritarren eta, bereziki, emakumeen parte-hartzea txertatzen ditu.
- d. Bere egiten ditu Berdintasunerako Udal Ordenantzan jasotako printzipioak, eta genero-ikuspegia, paradigma feminista, interseksionalitatea eta parte-hartzea txertatzen ditu.

**54. Altsasuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren esku-hartze eremuak honako hauek dira:**

- a. Berdintasunezko udalerrria, indarkeria matxistarik gabeko udalerrria, zainketak eta bizitzak politika publikoen erdigunean, eta emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoak.
- b. Tokiko gobernantza eta genero-zeharkakotasuna, indarkeria matxistarik gabeko udalerrria, zainketak eta bizitza politika publikoen erdigunean, eta emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoak.
- c. Tokiko gobernantza eta genero-zeharkakotasuna, indarkeria matxistarik gabeko udalerrria, zainketak eta bizitzak politika publikoen erdigunean, emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoak, eta berdintasunezko udalerrria.
- d. Berdintasunezko udalerrria, indarkeria matxistarik gabeko udalerrria, zainketak eta bizitza politika publikoen erdigunean, emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoak, tokiko gobernantza eta iraunkortasuna.

**55. Altsasuko Udalaren 2022ko sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloaren arabera, noiz hasten da prozedura formalak?**

- a. Salatutako jokabideak sexu-jazarpenentzat edo sexuan oinarritutako jazarpenentzat hartzen direnean.
- b. Prozedura informalarik bidez akordiorik lortzen ez denean edo kexa jaso duen pertsonaren jokabide sexistak errepikatzen denean.
- c. Salatzailak prozedura informalerik jotzea egokitzen ez duenean.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**56. Altsasuko Udalaren sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako 2022ko Protokoloaren arabera, ingurumen-jazarpenentzat hartzen dira:**

- a. Hierarkian goragoko mailakoak diren langileek edo jazarritako pertsonaren enpleguan eta lan-baldintzetan ondorioak izan ditzaketen erabakiak hartzen dituzten pertsonen eragindakoa.
- b. Lan-ingurune larderiatsua, etsaitasunezkoa edo umiliagarria sortzen duen jokabidea.
- c. Pertsona baten sexuaren arabera egiten den edozein portaera, pertsona horren duintasunaren aurka egiteko eta ingurune beldurgarri, laidogarri edo iraingarri bat sortzeko.
- d. Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**57. Altsasuko jaietan eraso sexistak prebenitzeko eta horiei arretea emateko protokoloaren helburu orokorra honako hau da:**

- a. Altsasuko jaietan emakumeen aurkako indarkeria kasuetan erantzun koordinatua ematea.
- b. Altsasuko jaietan emakumeen aurkako indarkeria kasuetan erantzun egokia ematea.
- c. Altsasuko jaietan emakumeen aurkako indarkeria kasuetan erantzun bateratua ematea.
- d. Altsasuko jaietan emakumeen aurkako indarkeria kasuetan erantzun adostua ematea.

**58. Altsasuko Udaleko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako I. Barne Planaren arabera, desadostasunik sortuz gero:**

- a. Alkatetzara eta ordezkariak sindikalera joko da ebazpena emateko.
- b. Berdintasunerako Batzorde Politikoa deituko da ebazpena emateko.
- c. Planak ez ditu aipatzen sor daitezkeen desadostasunak.
- d. Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**59. Altsasuko Udaleko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako I. Barne Planak berdintasunerako esku-hartzea lehenesten du honako esku-hartze eremu hauetan:**

- a. Berdintasunezko estrategia eta kudeaketa-sistema; Laneko osasuna eta generoa; Kontziliazio erantzukidea.
- b. Genero-ikuspegiaren zeharkakotasun-estrategia; Lan-osasuna eta generoa; Kontziliazio erantzukidea.
- c. Berdintasunezko estrategia eta kudeaketa-sistema; Lan-osasuna eta generoa; Zaintzak.
- d. Genero-ikuspegia zeharkako bihurtzeko estrategia; lan-osasuna eta osasun emozionala; kontziliazio erantzukidea.

**60. Martxoaren 20ko 27/2024 Foru Dekretuaren 3. artikulua arabera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren berdintasun-unitateen eginkizunak eta koordinazio-egiturak arautzen dituen, berdintasun-unitateek, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren ikuskaritzapean, honako eginkizun hauek izango dituzte, besteak beste (adierazi zuzena):**

- a. Berdintasun-klausulak sartzea kontratuen agirietan eta sailtako eta erakunde autonomoetako dirulaguntzen, beken eta bestelako laguntza publikoen deialdiak arautzen dituzten oinarrietan.
- b. Sail bakoitzaren eta haren erakunde autonomoen urteko berdintasun-plana egitea, Nafarroako Gobernuak finkatutako helburu eta jarraibide orokorrekin bat etorriz.
- c. Sail bakoitzaren urteko berdintasunerako prestakuntza-programan jasotako prestakuntza-ekintzak ematea.
- d. Genero-eraginari buruzko aurretiazko txostenak egitea foru lege, erregelamendu eta planen aurreproiektuei dagokienez.

## ORDEZKO GALDERAK:

**61. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua arabera, ondorengo eskuduntzetatik zein ezin du Alkatetzak eskuordetu?**

- a. Lizenziak ematea.
- b. Obra- eta zerbitzu-proiektuak onartzea, horiek kontratatzeko edo emateko eskumena duenean eta aurrekontuan aurreikusita daudenean.
- c. Udaltzaingoaren buru izatea.
- d. Osoko Bilkurarako eta Tokiko Gobernu Batzarrerako deia egitea eta bilkuren buru izatea.

**62. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35. artikulua arabera, honako administrazio-egintza hauek arrazoitu beharko dira:**

- a. Aurreko jarduketetan erabilitako irizpideari edo organo aholku-emaielen irizpenari jarraitzen diotenak.
- b. Interesdunek proposatutako frogak onartzen dituztenak.
- c. Diskrezio-ahalak erabiliz esaten direnak.
- d. Zehapen-prozedurak edo ondare-erantzukizuneko prozedurak hasten dituztenak.

**63. Nafarroako Berdintasunerako Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onartzen dituen urriaren 30eko 260/2019 Foru Dekretuaren arabera, honako hauetatik zein da Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren zuzendaritza-organoa?**

- a. Gobernu Kontseilua.
- b. Berdintasuneko Lehendakaritza.
- c. Gobernu Batzordea.
- d. Berdintasun Batzordea.

**64. Nafarroako Toki Entitateetan berdintasun-agentearen figuraren eginkizunetako bat da (adierazi zuzena):**

- a. Udaleko politikariei eta teknikariei aholkuak ematea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zeharka txerta dezaten udal-politikaren ikuspegian, lan-prozedura komunetan eta udalean garatzen diren jardueretan.
- b. Udal arlo guztietan berdintasunaren arloko jarduerak ezartzearen erantzule zuzena da.
- c. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei zuzenean laguntzea eta emakumeen aurkako indarkeriari arreta emateko baliabideak edo zerbitzuak zuzenean kudeatzea.
- d. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunekoak ez diren beste politika batzuk bultzatzearekin lotutako eginkizunak bete ditzake.

**65. Tokiko berdintasun-planen eraginaren ebaluazioari dagokionez, hau egiten da:**

- a. Plana diseinatu ondoren eta gauzatzen hasi aurretik.
- b. Plana indarraldiaren erdira iritsi denean.
- c. Plana amaitu eta berehala.
- d. Erantzun bat ere ez da zuzena.

**66. Noiz atxiki zitzaion lehen aldiz Emakumeen Institutua berdintasun Ministerioari:**

- a. 1988an.
- b. 1990ean.
- c. 2005ean.
- d. 2008an.

**67. Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean koordinatzeko Erakunde arteko III. Akordioa onartu zen:**

- a. 2017ko azaroa.
- b. 2016ko martxoa.
- c. 2015eko azaroa.
- d. 2018ko martxoa.

**68. Beijingo Emakumeari buruzko Mundu Konferentziari dagokionez (adierazi erantzun zuzena):**

- a. Emakumeari buruzko V. Mundu Konferentzia da.
- b. 1990eko irailaren 4tik 15era bildu zen.
- c. Nairobin egin zen.
- d. Bertan, Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma onartu ziren.